

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure *eskumuturreko feministarekin* sorturiko negozioa aurrera eraman ahal izateko, enpresa hau sortu dugun kideok ditugun hainbat baliabide eta abilezia jarri ditugu martxan, **gure negozio eredia optimizatu ahal izateko**. Gure baliabide eta abileziak batuz, horiei esker, kanpoko beste eragile batzuen menpekotasun zehatz batzuk ekiditea lortuko dugu.

Honako hau da guztion artean batu duguna:

- Alaia Usabiaga:
 - Eskuragarri duen lokal bat.
 - Teknologia erabili eta ulertzeko gaitasuna.
 - Ekonomia arloa menperatzeko abilezia.
- Olaia Ugarte:
 - Diseinu arloa menperatzen du (marraztu, irudikatu...).
- Ainhoa Segurola:
 - Erakunde publikoekin harremantzeko aukera.
- Aintzane Agirre:
 - Ertzaintzarekin harremanak ezartzeko aukera elkarlanerako.
 - Proiektuaren eta enpresaren erredakzioa egiteko gaitasuna.
 - Autodefentsa fisikoaren tekniken ezagutza eta eguneratze programa.

Abantailez gain, hainbat **arriku** ere aurkitu ditzakegu gure produktuaren inguruan hausnarketa egiterakoan.

Esate baterako, gure pultsera hain konplexua izanik (*eta honako hau ere arriku bat izan daiteke hainbat pertsonen ulertu eta erabiltzeko zailtasunak izan ditzaketelako*) , honako hau aurrera eramateko behar bezain beste diru edukitzea ezinbestekoa da, beraz, arriku handi bat izango litzateke inbertsiorik edo inbertsorik ez izatea.

Aldiz, produkzioa aurrera eramateko inbertsioa edukiz gero, ordulariaren funtzionamendua egokia dela bermatu behar dugu. Hau da, lehen aipatu bezala, hain konplexua izanik, funtzionamenduarekiko arazoak izanez gero, produktuak ez luke arrakastarik izango eta ondorioz, gure negozioa ez litzateke aurrera aterako. Arazo horien artean aurkitu ditzakegu esate baterako:

- GPSaren funtzionamendua okerra izatea.
- Abisuak atzerapenekin ematea.
- Grabaketak gaizki egitea eta ondorioz, froga bezala baliagarria ez izatea.
- Bateria iren iraupena kaskarra izatea.
- ...

Bestalde, gure negozioa aurrera eramateko, bada funtsezkoa den elementu bat: **produktuaren salmenta**. Eskufem *eskumuturreko feministaren* garrantziaren kontzientzia sortzen ez bada, zailtasun handiak izango ditugu produktu hau saldu ahal izateko. Beraz, kontzientzia ez sortzea ere izango litzateke beste arrisku bat.

Produktuaren salmentari lotuta ere, lehen aipatu bezala, produktu honen bitartekari bezala erakunde publikoak izango ditugu. Honako hauek berriz, beraien laguntza eta interesa eskaini nahi ez izatea ere izango litzake guretzako arrisku handi bat.

Beraz, argi dago, gure produktua aurrera eramateko hainbat **baliabide** beharrezkoak ditugula, baina horien artean badira funtsezkoak eta ezinbestekoak zaizkigunak, horien artean:

- Inbertsioak (dirua).
- Produktua sortzeko materiala (ordularia, ordulariaren korrea....).
- Pultsera honek eramango dituen aplikazioak (GPS, grabaketak, egutegia...).
- Aplikazio guzti hauek sortzeko eta ezartzeko ezagutzak dituen pertsona bat.
- Aplikazio guzti hauek arau eta lege guztiak betetzen dituztela ziurtatzen duen informazioa.

Gure produktua aurrera eramateko baliabideen artean, badira ere **lehiakideak ez diren eta gure produktua aurrera eramateko funtsezkoak** diren hainbat enpresa-mota, horien artean:

- Gimnasio ezberdinekin akordioak auto-defentsa tailerrak egiteko.
- Diseinu enpresak: ordulari modelo desberdinak sortzeko.
- Teknologian abilak diren enpresak: gure produktuaren aplikazioak sortzen eta martxan jartzen lagundu diezaguketenak.
- Gure produktua ezagutzera eraman dezaketen erakunde publikoak: bitartekari moduan lan egiteko prest egongo direnak.

Hala eta guztiz ere, badira beste zenbait enpresa lehiakidetzat har ditzakegunak baina aldi berean, beraiekiko **aliantza-estrategikoa** izatea interesatzen zaiguna; gure helburu berberak dituzten "aplikazioekin" aliantza sortzea alegia, esate baterako:

- Mapsfem (Google maps) eta baliozko proposamenaren atalean aipatutako *Col.lectiu Punt 6*ekin gure beharrak asetuz, euren proiektuan aberastu daitezkeela uste dugu.
- She taxi. ¹ Argentinan garatu den zerbitu hau (taxi-gidaria emakumezkoa izango dela bermatzen dizun zerbitzu edo aplikazioa) gurera gure aplikatiboekin fusionatuz ekartzea interesatzen zaien aztertzea komeniko litzateke.

Aliantzaren gaiarekin amaitzeko aipatu nahiko genuke, baditugula gure produktuarekiko zenbait **erosle-hornitzaile**, esate baterako:

- Erakunde publikoak (emakunde, udaletxeak...).
- Pultseraren diseinuaz arduratuko den enpresa.
- Aplikazio (Software) enpresak .

¹ <https://shetaxi.com.ar>